

## **BISITAK ETA IBILALDIAK**

[Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu](#)

### **Museoak eta bildumak**

**2018/04/20 - 2018/10/20**

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatu badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

[Bisitak](#)

### **Nafarroako Museoa**

#### **Igandea / 12:30h**

Bisita gidatuak "Danok Taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara, Angel Macías eta Josune Ilundainen eskutik.

Gaztelaniaz

[Katedraleko klaustroaren lanak](#)

### **Iruñeko katedrala**

#### **Igandea / 10:00, 11:00, 12:00.**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

## **DANTZA**

### **DNA Nafarroako Dantza Garaikidearen JaialdiakT**

[Sormen-prozesuak dokumentatzen](#)

#### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.**

##### **Asteazkena / 16:00etan.**

Bertha Bermúdezen eskutik.

Ikuskizunen jarduera osagarri gisa proposatzen da bigarren topaketa hori, DNA - Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdiaren barruan. Lan-saio moduan egingo da, eta haxe du helburu: ezagutaraztea nola sortu dokumentazio-funts bat sormen-prozesuetatik eta beren hedapenetik arte eszenikoen munduan, dantzaren alorrean bereziki.

[Gala](#)

#### **Barañaingo Auditorioa**

**Asteazkena 18.00etan / Osteguna, 20.30etan**

Jérôme Bel.

Espainiako estreinaldia.

Jerome Bel, dantza europarrean itzal gehien duten guretariko bat, galdera honetatik da abiatzen: zer gertatzen da pertsona arruntek osaturiko talde bat agertoki batera igo eta dantzaren plazerari amore ematen dionean? Gala-n, sei dantzari profesionalak agertokia partekatzen dute hamalau amateurrekin eta, gisa horretan, beren gorputz eta gaitasunetan gizartearen aniztasuna islatzen.

### [Cuerpo - Documento / Serie 1](#)

#### **Nafarroako Artxiboan**

#### **Ostirala / 17.00etan**

Estitxu Arroyo Sánchez.

“Gorputz-Dokumentua” ikerketa eszenikorako proiektu bat da, diziplina anitzeko fitxategi performatibo moduan asmatua. Gorputz femeninoaren inguruan ardaizten da, dokumentu gisa, topagune eta eztabaidagune gisa. Espazio izatez poetiko eta politiko gisa. Gorputz-Dokumentua fitxategiak zenbait karpeta dauzka, independenteak, pieza laburren gisara, haien artean elkarrizketatzen direnak, nola aurkezten diren eta horrela. 1. seriea lau karpetak osaturik dago: 1. Pasabidea; 2. Bilduma baten anatomia; 3. Aunitz izatea eta bakar bat ere ez izatea; 4. Agerpenak.

### [Mintzaldi dant zaduna 1. zatia.](#)

#### **Noingo Kultur Gunea**

#### **Ostirala / 21.00etan**

Toni Jodar explica la danza moderna y contemporánea.

Dantza Moderno eta Garaikideari buruzko mintzaldi dant zaduna (1. zatia) dantza garaikiderako atariko da, klasikotik abiatu, XX. mendeko korrante amerikarrean barna iragan eta European akitzen dena Espresionismoarekin eta Antzerki Dantzarekin. DNA Jaialdiaren programazioaren barnean bigarren zatia ere badago: Conferencia Bailada: Toni Jodar explica las Tendencias Actuales. Aranguren Ibarreko Kulturgunean aurkeztuko da, Mutiloan, maiatzaren 12n, larunbatarekin, 12:30ean. Bi performance pedagogikoak Dantza azalduz ikusleak hezteko eta sortzeko programaren parte dira.

### [Gustavia](#)

#### **Gayarre Antzokia**

#### **Ostirala / 20.00etan**

Gustavia-k nazioarteko dantza garaikidearen bi artista handi biltzen ditu, Marx anaien, Keatonen edo Chaplinen burlesque klasikoaren unibertsoetik edandako ikuskizunean, agertokira ekarri nahirik gaur egungo feminismoa zenbait auzi, hala nola sororitatea/lehiakortasuna eta “emakumea izatearen” aniztasuna. Gustavia-n bi emakumek gag bilakatzen dute kartoi-harrizko tragedia, oro eroriko, amarru eta behaztopo. Bi emakume, zer eta askotariko antzerkia haragiturik: animalia exotikoa, dantzaria, bihurrikaria, akrobata, ilusionista, vedettea, atleta, emakume indartsua, orekaria, boxeadoarea...

### [Bolero](#)

#### **Noingo Kultur Gunea**

#### **Ostirala / 20.30etan**

Jesús Rubio Gamo.

"Bolero" egoskorkeriaren gaineko obra da, arinaren eta larriaren arteko mugaren

gainekoa, plazeraren eta akiduraren arteko joan-etorriaren gainekoa. Orobat erran liteke denboraren iragateari buruzko eta "bizi osoa" irauten duten harremanei buruzko dantza dela. Jesús Rubio Gamo dantzari, koreografo eta idazle madrildarra 2008az geroztik ari da bere sorkuntzak ekoizten.

### [Calling Tree Performance ibiltaria](#)

#### **Rincón del Caballo Blanco**

**Larunbata / 12.00etan**

Rosemary Lee & Simon Whitehead.

Espainiako estreinaldia.

016an "Calling Tree - London" aurkeztu ondoan, DNAk Rosemary eta Simon artista britainiarrak gonbidatu zituen proiektua Iruñean berregiteko. Jaialdiko hamar egunez, Simonek, bertze hiru artista britaniarrek lagunduta, performance ibiltari bat egingen du Iruñeko harresiek eta parkeek hazten dituzten arboletan zehar. Entsegu aldi horri burutzapena emateko, artistak agertu eta desagertuko dira zenbait tokitan,

### [Conferencia bailada \(Parte 2\)](#)

#### **Arangurengo Kultur Etxea**

**Larunbata / 12.30etan**

Mintzaldi dantzadun honetan (Toni Jodar explica las Tendencias Actuales) hainbat gai jorratuko dira, hala nola dantzaren eta arte plastikoen arteko loturak, hibridazioa, biluztasuna, gorputzaren demokratizazioa, umorea eta mugimenduaren alderako gustua. DNAren programazioaren barnean orobat dago Conferencia Bailada: Toni Jodar explica la Danza Moderna y Contemporánea -ren lehen zatia, Iruñeko Civicanean aurkeztuko dena maiatzaren 10ean, ortzegunarekin, 19:00etan, eta Noingo Kulturgunean, maiatzaren 11n, ortziralearekin, 21:00etan. Bi performance pedagogikoak ikusleak hezteko eta sortzeko Dantza azalduz programaren parte dira.

### [Errata Natural, Kirolak, Bolero](#)

#### **Kale Nagusia (Zangoza)**

**Larunbata / 13.00etan**

Led Silhouette, Laisa Aldaz, Helena Lizari, Jesús Rubio Gamo.

### [Ziudadelaren okupazioa](#)

#### **Ziudadela**

**Larunbata / 18.00etan**

DNAren amaiera, zinez bikaina, Ziudadelako lorategietan izango da, maiatzaren 12an, larunbatarekin, 18:00etan, Nafarroako, estatuko eta nazioarteko hainbat artistaren lanen eskutik.

### [Kirolak, Bolero, Errata Natural](#)

#### **Behe Nafarroa Plaza (Agoitz)**

**Igandea / 13.00etan**

Helena Lizari & Laida Aldaz, Jesús Rubio Gamo, Led Silhouette.

## **ERAKUSKETAK**

### [Gamazadaren 125. urteurrena](#)

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.**

**2018/04/02 - 2018/05/31**

La Gamazada izenez ezagututako gertakari historikoen hasieraren 125. mendeurrenaren haritik, haiei buruzko dokumentuen gaineko erakusketa, formatu txikikoa, antolatu du Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, hilean behingo erakusketa-programaren barruan.

“Gamazadaren 125. urteurrena” apiril eta maiatzean zehar egongo da ikusgai, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren egoitzan, 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteburu eta jaiegunetan.

[Makotu](#)

**Jorge Oteiza Fundazio Museoa**

**Erakusketa. 2018ko martxoak 22 – ekainak 3**

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Museo Sarea eta Eguesibarko Udala

Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artistak, azken urteotan, Jorge Oteizaren legaturako eta haren eskultura-proiektuan sinbolikoa eraikitzeko modurako hurbilketa kritikoa proposatzen duen obra multzoa egin du. Horren bitartez zalantzan jartzen ditu modernitatearen amaieran eskultorikoa irudikatzen mekanismoak.

[“Danok Taldea. 1966-1967”](#)

**Nafarroako Museoa**

**2018/03/10 - 2018/05/27**

Nafarroako Museoak “Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea” erakusketa eskainiko du, Nafarroako garai hartako arte-munduko 27 artistaren 40 lanez osatua. Danok taldearen bat izango ziren Nafarroako artisten lanek osatzen dute erakusketa hein handi batean: José Ulibarrena, Isabel Baquedano, Julio Martín Caro, José M.<sup>a</sup> Ascunce, Gloria Ferrer, José Antonio Eslava, Xabier Morrás, Jesús Lasterra, César Muñoz Sola, Salvador Beunza, Juan Miguel Echeverría, Pedro Osés (zeinen obra bat erakusten den, Juan José Aquerretarekin elkarlanean egin), Eugenio Menaya, Narciso Rota, Miguel Echauri, Mariano Sinués eta Pedro Manterola.

[Zabalik](#)

**Nafarroako liburutegia**

**2018/04/18 - 2018/05/31**

UPNA EN ABIERTO - NUP ZABALIK

Aurkezpen ekitaldia apirilaren 18an, 19:00etan, solasaldi-bisita gidatuaren bitartez erakusketa aretoan bertan.

Erakustaldiaren ordutegia:

10:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 20:30etara

(Larunbatean 13:00ak arte)

**HAURRENTZAKO AISIA**

[Ongi etorri ipuinetara: Kamishibai.](#)

**Nafarroako Liburutegia. Hurren liburutegia**

**Asteazkena /18.00etan**

Barbara Eugui ipuin-kontalari boluntarioak bi izenburu hauek narratuko ditu,

euskaraz.

"Pinguino hozbera", Philip Giordanorena.

"Maite nauzu oraindik", Eve Tharletena.

Saioa euskaraz.

## KONFERENTZIAK

[Patricia Almarcegui: voces de mujer en Irán](#)

**Nafarroako Liburutegia**

**Asteartea /19.00etan**

"Bidaiariak. Emakumeak on the road" zikloaren barruan.

[Poesía en el tiempo de la Escuela Vasca](#)

**Nafarroako Museoa**

**Asteazkena / 19.30etan**

Poesía en el tiempo de la Escuela Vasca (1960-1968). Irakurketa Gabriel Insausti idazle, itzultzaile eta Nafarroako Unibertsitateko literatura-irakaslearen eskutik.

[Buscando la isla del tesoro](#)

**Nafarroako Liburutegia**

**Osteguna / 18.00etan**

Liburuaren aurkezpena: Buscando la isla del tesoro, cuatro relatos de inmigrantes subsaharianos. Maiatzak 10.

Miguel Ángel Cabidevilla eta Mamadouren eskutik.

## KONTZERTUAK

[Carmen Yepes, pianoa](#)

**Baluarte (Sala Gola Aretoa)**

**Asteartea / 20.00etan**

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

Musika-Difusioko Nazio-Zentroarekin (CNDM) elkarlanean, eta Egungo Beethoven lelopean, Ludwig van Beethoven musikagilearen 32 sonaten integrala eskainiko da, espainiar pianista gailenen esku. Programa osatuz, Ligetiren estudioak eta gaur egungo espainiar musikagileen obrak. Egungo Beethoven programaren zortzigarren kontzertuak Carmen Yepes piano-jotzailea izango du protagonista

[Nafarroako Orkestra Sinfonikoa](#)

**Baluarte (Areto Nagusia)**

**Osteguna, ostirala**

XIII. Abonu Kontzertua

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

Zuzendaria: Charles Olivieri-Munroe

## TAILERRAK

[Kartografia hedatua](#)

**Huarte Zentroa**

**Ostiraletan 17:00etatik, 20:00etara.**  
**Larunbata, igandea / 11:00etatik, 14:30era**

Kartografia hedatua. Hiri [des]itxuratua

Maite Redondo, Mikel Irure

Dokumentatzen denbora bat eman eta Iruñearen lurralde fisikoaren hainbat mapeo egin eta gero, bi abiapuntu ezarri zituzten artistek, monumentu bat eta "historia anonimo" bat. Haientzat, konfrontazio honetan, marruskadurak eta gatazkak sortzen dira, boterearen harrokeria eta "besteen" jazoerak ikusezin bihurtzea, urbanismoan eta espazio publikoan zehaztua. Bi kasuetan, haria, ildo nagusia, heriotza da.

[Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza](#)

**Huarte Arte Garaikideko Zentroa**

**2018/04/30 - 2018/09/30**

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

[Zeharkako estetikak | Aisialdiko ekosistemak](#)

**Huarte Zentroa**

**2018/04/21 - 2018/06/11**

Egoitza artistikorako deialdia eta Uharte, Atarrabia eta Burlata udalerrien testuinguru soziala kontuan hartuko duen proiektu baten garapena.

## ZINEMA

[Paisajes transformados](#)

**Nafarroako Filmoteka**

**Asteazkena / 20.00etan**

Independent Spirit Awards-en eskutik dokumental onenari izendatutako film honek Edward Burtynsky ekologista eta argazkilariak mundu osoan zehar egiten duen bidaia erakusten du, industriak paisaian eragindako kalteak ezagutzera emanez eta, modu honetan, etengabeko kontsumoan oinarritutako gizarte batek eragin ditzakeen kalteen ingurua pentsaraziz.

[Milou en mayo](#)

**Osteguna / 20.00etan**

Louis Malle-k, Estatu Batuetan "erbestean" egon ostean Frantziara bueltatzerakoan 68ko maiatzaren inguruan egiten duen filma da hau. Denbora zein espazioa direla medio aztertzen du jazotakoa, akzio nagusia Parisetik aldenuz eta istorioa frantses landazabalean kokatuz. Heriotz baten inguruan bildutako familia da istorioaren protagonista. Metafora bat eraikitzen du honela, gorpua patriaren heriotza aldarrikatzeko baliabide gisa erabiliz, baita familia diseinatzerako orduan garaiko frantsesen argi eta ilunak azpimarratuz.

[Pasaporte para Pimlico](#)

**Nafarroako Filmoteka**

**Ostirala / 20.00etan**

Satira politiko eredugarria da hau, british gauzen inguruan ironiaz mintzatuz, gerra ostean krisian zegoen nazionalismoa umore puntu batekin aztertuz, eguneroko ohiturak etab. Estatu berriaren aurka gobernuak hartutako erabakiek britainiar

herriaren zein frantsesen kontrako erantzuna eragingo du, era berean bi hauen  
elkar-ulertzea lagunduz.  
Zuzendaritza: Henry Cornelius